Gaupasak

Juanjo Olasagarre

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1991 Juanjo Olasagarre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1991ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Hemen hor bezala
zoriontasuna inoiz ikusigabeko
itzal iheskorra dun
nonbait, ezaguna haizenez gero,
guttunak izkiratzea debeku dun,
arrazoia dun, bai, arrazoia dun
zertarako izkiriatu, ezagunak bait gaitun
baina badakin askotan ezagunenak
arrotzenak, hurbilenak urrutien,
itzal iheskorra izanen dun ere
hor hemen bezala nia
nia eta haustura, arraildura
hor seguru hemen bezala
odolak egiten din laster
hor, nere barne exilioan seguru badela
hau izkiriatzen duenaren antzekorik,
nire izen berbera duen itzala, seguru badela,
nahiz pastelak gustoko ez dituelako edo
nire izaerarengandik apartatu.

ISPILUAREN AURREAN

Hemen hor bezala
zoriontasuna inoiz ikusigabeko
itzal iheskorra dun
nonbait, ezaguna haizenez gero,
guttunak izkiratzea debeku dun,
arrazoia dun, bai, arrazoia dun
zertarako izkiriatu, ezagunak bait gaitun
baina badakin askotan ezagunenak
arrotzenak, hurbilenak urrutien,
itzal iheskorra izanen dun ere
hor hemen bezala nia
nia eta haustura, arraildura
hor seguru hemen bezala
odolak egiten din laster
hor, nere barne exilioan seguru badela
hau izkiriatzen duenaren antzekorik,
nire izen berbera duen itzala, seguru badela,
nahiz pastelak gustoko ez dituelako edo
nire izaerarengandik apartatu.

Ilunabarrak behera egitean zergatik jakiteke
argiak bihotzaren leizeak arakatzean
bada hiri itzali baten gisa
kausituko ez dugunaren aurresentipena
gure urrats berberak errepikatzen

Orduan da oroimena, zigarro hondakin itzalia
orduen hausterrez ehundu oihalekin sortzen denean
orduan batu ezinak direla sentsazio oro horiek
orduan denbora mudapen ordez kolage hautsi
orduan beste batek imajinatu keinuak

Hari zilarreztatu batek gurutzatzen du gorputza
urruneko lurrak ezagutu txori migrari bezala
itzulera bestean paratuz oroimen berde horren
sustrai loratza: fauna zeren berak
oroitu oroitu egiten baitu bera ez balitz bezala

Ibai ertzean larrujo aldia
bisaigeko gorputz hura musukatu zuena
alkandora hura itzal istil aztarna eza

naizaren arrarokera
landare urdin ortuaren sakonean

Kontuak ateratzen ditu iragandako arratsez
emandako egunez bereganakoak behatuz
paisaia guzti horiez bere bihotzez
unatua arrotzak zaizkion bizipenez bizia
hain zaio beste buruko bere buruari

Oroimena niaren hostroen sostengu
hain da arraro gogoratze eza hau
hain estraino arrama ebaki horiek
bere burua errekonozitzea ezinezko zaio
oroimena beti besterena denean.

Zurezkoa erran duzun hitz hori
egun hauen arrama artean gogoratzeko
noizbait gure Aurki aunitzak lorratzak
izanen direnean
akuarelatua paisaia hau non
bizi gareneko garelakoaz antzesten baita
eskena urtua urtasun aroan
ainguratuz. Badira zeinu batzu
denborarenak zitezkeenak
finadura, esatebaterako edo istorio
latz guzti horien gehiketa
bada ulidura haragiaren borreroa
eta izerdia frutazko tanto batzutan
bada gareneko xortasuna
ametsetan kiribiltzen
gauean hedatzen den doinua
entzutez nazkaturik gauden
kanta.

Zenbat izen ditu heriotzak
arru maiztasunez egunak, udak
uda udatuz, neguak hotza
bihotzak bihotzetan
pairamenaren uzta zorituz
eta mirailak beste zu bat
itzuliko dizu zure buruaren aurkezle
galdutako guztiaren izkiriatzaile

Izanen dituzu akaso
espazio bizigabeak, atzoak beti eta
furingera iheskor hori denbora
denbora dena aztiatua, lehaio, zu bera
goizaldetik milaka formatotan
aurkeztua.

Inularrean ene izenaz ahanzten naiz
goroldioaren mirabe ur nabigagarrietan
hil-urren bezala desbizitu eguna
estrata beilegiaren amiltze leuna
inularrean ahanzten naiz eta itzuli
antigualdean naizen honetatik erori

Kulunkan pausatu, paper ortze infinitoak umotu
ene izenaz ahantzi eta pausatu
salaren freskuran
ene burua itzala legez arnastuz
izkiriatzen naiz

Inularrean ahantzi perbersioak onduz
izkiriatu nahi naiz, puntu hegirak
puntu etoiak ume hordiaren habiak
desio urtuak langar mintza mixaren desio

Inularrean ene izenaz ahantzi eta desbizitu
hil-urren bezala goroldioa ehundu
Inularrean.

Nola trena estazioetan sartzen den
hala sartzen dira estazioak gugan
maleta bezala eroan ohi gara
eta Nira heldutakoan
pertxatik zintzilik beha dugu
nola bilduko garen eta joanen
beste estazio berri baten bila.

JANTZIAK ETA HATUAK

Beranduago dira beranduago
inoizko ele triste hori horiek
kaiolez eraikiak, arrangura hotzak
erahil arrats kausigaitzak nonbait

desioa gero uncertain-a apika iragan baina inoiz ez
gertakizun dena, inoiz ez
ihesa atearen bestaldean gordetako
errainuaren lekuko, ideia itsasoa

hemena eta orainaren salatari mina
iragan ororen hondamendi umoa
inguruaren perzepzio arkera
ankerra bere frintza orotan

takigrafo sustraigabeak akaso
auzitegi horma beltzetan
gertatutako heriotzak baino
hobe darrai edertasunaren aztarna

garaiak, garaiak non heriotz ttipiak

poema abailetan urtzen baitira
non edertasuna zaramaren apopilo den
eta legez kanpo beti.

Euri eza eta bizi-arazoak direla medio
sentimendu demografiak
urrikuntza ikaragarria hartu du
atxiloketa ugariak
gauez gau
nekez heltzen dira
egun lanbrotsutako zirraren
espetxe guttunak
noizbehinka lerro hits batzu
uhuri gargail gisa
isiltasuna gero
errefuxiapenak urrutiko herrietara
—perzepzio bestelakoen erresuma ilaun—
estradizio uholdeak
heriotz zigor akitzen dira
gure burua maite duguneko jats beltza esaterako
hilobi amankomunean datza
hira lits urgunekin batera
desioa gau-haginetan
itzultzen da doi
ihes egiteko berehala

atzipe ez dezaten
proteina dugun hogena
zokorik ilunenetan gorde behar izan da
azken heroi bezala
ekintza suizidetara behartua dago
euri eza eta
bizi-arazoak direla medio
sentimendu demografiak
urrikuntza ikaragarria hartu du
lurralde okupatuan bizi
lurralde okupatua izan.

Badirudi haize erauntsiak datozela
halere euriaren esperoan
da negua

«Demokrazia garaile Ekialdeko herrietan
erresistentziaren estatuak hiltzear direla eta
edozein gauza gerta daiteke hurrengo egunetan
oraindik ez dator denok espero duguna»
esan du irratiak

Egoneza beilegia hedatzen da belatze hezeetan
zehar
atezuan egoneza hirira noiz sortuko zain
uholdeka hitz gutxi batzu eta
seguru jakiten ez denaren xerka
egunen erronkak arlauzak utziz gure baitan
(ez gara gure baitakoak
du erran bihotzen mugalariak)

Biharko aurresentipenak sortu nekea
normaltasunak jaun eta jabe

errotu baita
nola joan den zerbait egun
hala bihar
ezpata bezalako
«zergatik» berri bat landatuz

Ilbeltza gaua 1990
zerbait joan deneko lorratza
aterik gabeko giltza bezala
(ate ostean atea
bihotzen mugalariak erran du)

Eta zerbait positibo hausnartzearren
perbersioak ditugu
txukarrez beteriko hautsontzi batzu
bizi dugunaren seinale
gorputz bat
abailago
maizago ukatzen zaiguna eta
iragan delako esate hori
iazko errenta aitorpena bezala

Errealitatea idatz makina zahar
non batzutan lili bakarra den
izan zen «doble-wind» ama
ume laborrien garunak mendren

Izan zen biziaren jaiotza eta abortoa
nekeduraren ilunabar harildua
ohantze fantasmalen mitoa
itsas suen jela geruza

Zekartzan intziriaren atabala
gertakizunen ur laratza
haritan hordi keinua bezala

Mamu eta aingeru izan zen
errealitatea «doble-wind» ama
non lipar ilauna desden

Saldu genuen saldu
etxea ganadoa lurra gure lurra
saldu
jende saldo saldua gara besterik ez
paradisoa ez zela gure bihotzen
biztanle bagenekien
begenuen lurra gurea
seinaletzat kantuak dantza
leiendak ipuiak
herri oro bezala
existitzen ginelako datu bilketa
historiaren seme egin gintuzten arte
eginkizunaz tratatu eginez
izateko izateaz ohartu beharraz
herri honek azpikoz kanpora egin zion bihotzei
etxea estrematu zuen
liburuetan bilatu
ahaztu bizitzez
eguraldiari lurrari bezala adarrak belztean zen
urratsa erabakiorra zenean
huts bakarra fatala

zugaitzak haltza makala haritzak
heroiak gure Gu
piztiak otsoa hartza jela
txepetxak
paperezko tigreak
amaitzear zen bale leinuak
goroldioak iraganak denborak
magalean hartu gintuen paisaiak
gizonak emakumeak abarrak
erru soleileak
bihotzez egin zuten sala
ispilu non begiratu
zertan zen herri hau... Urtua
ipar leinukoa ote zen
datorren udaberriko jaiotzak leinukoak ote?
bizitzea ez zen nahiko
erantzunak behar
ehun metro korritu ondoren hildakoak
zein desertutara egin zuen bidaia?
eskizofrenia herri honek asmatu eritasuna ote?
non paratzen zituzten dinamitatzaileek bonbak
bere bihotzetan edo
mugetan, harandiko lurraldeetan?

Eta akaso kitto ote: hemengoa naiz
bihar bero egin du
dena da berde

Saldu genuen saldu
saldu etxea ganadoa lurra gure lurra
abiatu ginen
nola indio amerikarrak erreserbarantz
eskutsik hotzez ilun
gure buruen bila
laparrez lapar, bihotzez bihotz
umeak besoetan, zaharrak herren
manukor permadura, senak ibai
arrats geldiaren so pean
jakinaren gainean izanik
uherra zela aurkigaia
epopeia patuaren pasioz paradisu zitzaigula, bide
arauen arabera hilotzak sortuz
traizioak deserzioak heroiak
guda eta izurriteak
sua bikoiztasunez hormatua
noizbait izanaren eternitatean
gero laberintatuak

Eta bideak zugaitz harrituak landatu zituen
pertsonak bezala
biziaren zama gisa bidaiatu paketeak
beste bide batzu eta itzuli nahi zutenak
eroritakoan inoiz ez jaso arrenkurak
halabeharrez saltzaileak
haiek: zaharrak
eta haien ondorengoak: ehortzaileak
bidaiaren pasioz gure bihotz aldatuak
iparraldea zuten amets
han nonbait utzi genuen etxea
baina jada ez genuen etxerik
saldua zen

Geroztik ipar leinuen bihotz ttipietan
izaki saldu bat dago
geroztik ipar leinuen bihotz ttipietan
saltzaile batekin lehian

Etorri da negua dio azken euskaldun aratzak
baserria herria elurra hotza pentsatzen du
bero beharra epelago norbaiten besoetan eta
ahitu zaizkio mistoak, agortu bere buruaren
konpainia
haizeak hutsa dakar gauaren ateetan hoska

Ahitu zaizkio mistoak, agortu konpainia
larunbata, hotza sukaldean, otordua gertatu
ganadua gobernatu, tristeziari eutsi, pentsua eman
bizia du etsaia ez du inoiz ezagutu Joanes Artzaia
baserria hotza larunbata gaua herrian jaia

Argi gorriko etxea putak gin-kasak
mutil zaharrak ate joka damuak gerorako utziz
beso batzuen bila Fatima beltzarana arana
emakume ederra xarmanta ezagutu bakarra
«kondonik gabe hamar bortz bestela»

Leitu du kartel handia «Egiozu ihes HIES-ari»
ezezaguna zitzaiona ikasi du leitzen eri

da gaixo hilen naiz dio azken euskaldun aratzak
ez dut merezi dio bitan egindakoagatik paga
ez dut merezi isten dira aldabak

Unatua da eri baditu narruan ubeldurak ozkotzak
etorri da negua azkenez ganadoa gobernatu
pentsua eman tristeziari eutsi su egin
azken baserriari heldu, azken negarra ixuri
ganadoa gobernatu, azkenean, Azkenaren zai
datza azken euskaldun aratza
azkenik!

Presoak gartzelan dirau
eta egin daiteke poema arrosa
esaterako
«gure herriaren bihotza preso dago
ez da negar garaia, borroka garaia baino
arratsero norbaitek negar dagi
ama anaia arreba seme alaba senargai lagun
arratsero norbaitek zerratuaren seme-ametsak
hariltzen ditu»

Eta egin daiteke poema surrealista
«arratsero bihotz akutxilatuei semen eta hilerokoa
hormatzen zaie burni hotzaren etorbideetan
arratsero norbait hiltzen da
ama anaia arreba seme alaba senargai lagun
arratsero pentsamenduari zaizkio
usteltzen hegalak»

Eta interpreta daitezke biziak metaforetan
zerratua egun iluna arrats eza
desolamenduaren desolamendu zeldaren zeldan.

Inularrean
paisaian figura batek goazenean
makalak transmigratzen du tristezia.

Orena da, Desiok
pizti iheskor gisa egiten du jauzi
arratsaren espazio laranjara.

Edozein herrik gugan datzanak esatebaterako
atzipez dezake lokarri berdeskez
airera garen errainu ilun hori.

Beiraduraren geldotasunean bada
txirrinka hautsi zaiolako
negar dagien umea.

Eta hogeigarren mende amaiera honetan
gartzelan dagoenarekiko oroitzapen ilauna
orain da paisaia porlana den unea.

Emakume bakartiak tristura transparentatzen dute
dolu soinekoz
paseiatzen dira arratsaldean beren gizon
hilenganako desioz
amets ankerra bizi izan zuten paseo bakartiak
geratzen zaizkie soilik
eta oroitzapen idealizatu bat maite izan zuten hartaz

Izan ziren bortxatuak izan ziren irainduak izan ez
ziren
esan zieten hura prometatu... arratsaldeetan negar
dagite negar
ukan zezaketen herra ukatua zaie ezin dute maitatu
herra
ez zuten ikasi eta gaur azken eguna espero dute
oroitzapen apurrak janez
sexoaz ez dira mintzo ez zuten ikasi bizia beste zen

Eta etzaten dira pirula antinerbioz
plazerra bere iloba ez jaiotan kausitzen zer egin
duten gaizki

galdezka Jaungoikoak zergatik zigortu ...atrebenzia
ez bada
eta bazkaria prestatu ohi dute maitekiro
ezinorentzat
egunen amildura leuna iragaiten beha

Beren soinetan munduko marabilarik handiena
gordetzen da esan zieten
hamar-hamabost urte zituztela gorri gorria zenean
egun hura
beha dute zimurra nardaz aintzina ukan zuten soin
hori
jada ez dena haragi puska bat baizik
haltzak aspaldian isildu ziren ez dira gerri eta
giharrez mintzo
gizon hilak soinetan dautza betirako lore edo laban
gisa
eta doluan transparentatzen da bakarkidea arratsari
dirdir
ez
hiltzen ere ez zuten ikasi.

DESIOAREN BIDEAK

Baina hain da luzea bidaia hain nekeza mortuan zehar trabesia hau
aeio esan genion hainbeste gauzari hainbeste soin hil gibelean utzi
ezkietan soin guzti hauek zintzilik sorterri umel hartan
nobody knows where... ikasi genuen esaten ortze halabeharrez gorriei

Muga bat edozein muga espero dugu urrun jabal honetan
baina hain da luzea bidaia hain nekeza mortuan zehar trabesia hau
eki frintza bakoitzean trasaldatzen zaigu paradisua desioz harantza
kanta ohi dugu likido amiotikoen igarleak noiz sortuko zai

Zein mentekatua gure Moises berez Moises oro mentekatu
halaber jaungoikoa mentekatu aginduz agindu sutan

mentekatuenak gu herri aukeratua ustez nobody knows jaunaren...
dugu ilunabar oro gareneko mana jan ohi

Azken kanpamendua nonbait balitz sikiera
kanpaina dendak gure narruz josiagatik
jaungoikoaren beharra pairatuko genuke
aisa aisago bederen manualetan letorke bizia nola den

Baina hain da luzea bidaia hain nekeza mortuan zehar trabesia hau
gamelurik gabe dunaz duna erratze astuna
erraiak urratzen dituen haize sargoritsu hau soineko
legea bezalako aho-lehorte hau heriotz itsaso baso.

Ze ez bait zekien denborak urrats
deslai guzti horiek ekarriko zizkionik errauts
herratsuz laburbilduz bizia.

Aztarna:
trenaren ulua urruntasunean hitzez zamatua
denbora zingira uherretan gordetzen
Iraultza hitzaren indar balaztatua
Sozialismo hitzaren tolesdurak
pasiogeko bizi honetan uzkeldurik
ETA konjunzio kopulatiboaren itxura aldaketa
ETA kausala eta orain
kasuala nola den kasuala
erabat naifa diote
desioak pasioa persekutatzea
erabat anakronikoak diote
pasioaren bide aunitzak

Eki arrenkuratsua berandutzen da agindutan
urrats berdeak arrats gabe leher daitezke
eta jitoa bandera ona da mendreen

igual da ze inporta du
ez da inoiz garaitza hain hutsala izan

Horregatik eta bizia temati delakotz
kausalitateaz eta zenbait hitzen esanahia erkinez
lehiatzen da
horregatik marrazten dute urratsek
desioaren bidea goizalde beti zanbrotsutan
horregatik zaio bihotza beti trena beti
iparralderantz abiatzen.

Dio:
Ez dut ele gehiago erranen zure izenaren izenean
ez dut elurraren errai lizuna zurekin bisitatuko
ez zaitut ikusiko inoiz kez landutako landetan barna
ez dut zureganako perbersioen xendetan irri eginen
zure ipurmasailetan izkutatu galderak
erantzun bila zetozen
(desioa beste falo batez naharo)
nontu zinen errealitatea eginik ezerezaren antzeko
mundu soraio batenganako grinez
atetua iraduaren aterbeetan
(eskapoa galderaren aurrean)

Igandako urteez ahurretan ezer gutxi
haize-lorratzak bailiren oroimen itsu batzu
nabarmentzeko hitsegi, gogoratzeko lain ez
motor abarrotsa bezalako, errime,
erreka hutsen amiltze barrunbe bat
egun oro hamabietan ohera aurretik
desaditu behar dena
erromantizismo desitxuratu hau ipuinekoa
bailitzan egite trajikoenak maitatzera
haramana, mitomaniarako joera hori
hain farregarria batzutan
(antigualdean hil huen Etchaun
eta inzestoaren aroa iragana duk)
autokupida estatua umel hori, hire
hirugarren itzala
ez diat pairatzen
pisu paratzen haiz hireaz
mintza eta mintza
badituk
urrearen dizdirak higan
hire buruaz, esatebaterako

gozo trufatzeko paradan
gustoko haut, maitatuen
halere
isilik hagoenean.

Nik egin nezake kantu ilun bat
sol sostenidoz ezein arratsaldetan
zuhaitzak basoan lainoak ernetzen dituela

Nik esan nezake non galdu
zen azken aztarna, zeri segi
okasiorako moldatu moldeetan

Nik jo dezaket ekintzara
bizi bakartira apartatu esaterako
sentimenduen lurraldea bentzutu ondoren

Ni egon naiteke xor
artean negu gorriaren kabinatik
salbaziorako hots egiten didaten bitartean

Nik ahoska dezaket
jabal zaitez, konponduko da dena
eta estazioen anonimotasuna balakatu

Nik egin nezake malko
arratsaldea erreketan iragaiten beha
lasai lasai konponduko da dena

Baina zuk, zuk diozu
gure historiaren seme gara
berandu da
euri zara.

Gal nazazu
eraman zuhaitza haizera transparentatzen denera
eraman

gal nazazu
etzan han non haizeen-zuhaitza jasotzen den
hauts horia
mugitzen

gal nazazu
argitu han non hauts horiak hegan egiten duen
lurralde bihoztu
hartara

gal nazazu
taupadatu han non lurralde bihoztuak
exiliatuak dituen
hartzen

gal...
gal gaitezen
han non zuhaitzak ur bihurtzen diren.

Lagunak izandu ginonen
DENBORA: iragana
PERTSONAK: gu (hi ta biok)
ASPEKTOA: burutua, ekintza amaitutzat jotzen
denekoa, alegia
badakin ez dun inoiz izan laguntasuna bat bakarreko
kontua
nahiz, bide batez, gure burua gutxi maite dugula
esan behar
beraz, bi gutxienez, arerio izateko ere
ZERGATIA: bizian gerta ohi den moduan... iragaitea,
ekanduaren gandua edo beste izenez: nekea
kriseiluak ilunbeta hertsian bezala
maitasun kontuak itzaltzen ditun gehien
LAGUN: izena: ongi ez dakiguna ordezkatzen duena
letra ttipiz: euriak bustitzen gaitu
ttipiagoz: maitasunak jan
are ttipiagoaz: gure buruak islada iheskorrak
ikustezinez: hilkutxak ohantzeak
-AK: aniztasuna adierazteko atzizkia: gu (hi ta ni)

IZAN: nia: eromenaren arraildura anitzean errotua beharrean

izan... gero: ni, zu, nirea, autoa,

etxea, emaztea, semealabak, izan... gibelean: heriotzak

GINONEN: adizki laguntzailea esan bait dinat

badakin ez dun inoiz laguntasuna bakarreko...

gero: oroimena:

Lagunak izandu ginonen

Ezta ele bakar bat ere laztana
hauts bait daiteke enigma kuttuna
ez zaitez mintza, ez mugitu maitea
errekonozi ez zaitzan ene ispiluan errainu

Iraun ezazu laztan honetan laztana
sorbeltzak errozpean zinkuru kuttuna
kale arnasa, egurats ozena maitea
urrun mugaz harantza ene bihotzeko bihotz

Ez nazazu begira laztana
apika izutuko nauzu kuttuna
ohar zaitez aienak nahi gaituela maitea
eta gaueko espektro bilakatu ene paduko padu

Ezta ele bakar bat ere laztana
hauts bait daiteke enigma kuttuna
ez zaitez mintza, ez mugitu maitea
maitasunak eho nahi gaitu ene errotako erroi.

Gaurko musuak atzoko oroitzapen
oroitzapen bihar gaurko musuak
eraztun zirkulu zinkurua
soin leinuru xumea txingar moreko zuzia

Hura itsaso emaroa dirdai urreztatuan
ekuru isiltasun mina itzal
batzu maitatzen marmarrez esate hura
gaurko leinurua oroitzapen higatua bihar

Ikutu zehatza soin gainean
zilar ehun urradura bezala
tropoiluan zabalezinezko desio hura
gaur maindire aizuna atzo desio gezala

Arrenkura ibaiak plazer huistenganako
kurrikak lako eskuak
mugimendu itoak ebasten
ilunbeta ihesak atzo gaurko kurrikak

Abiapuntu eternal ekintza
oroitzapen bihar gaurko musuak
gaurko leinuruak ilunbetak atzo
desio atzo gaur maindire higatua

Gaurko kurrikak ilunbeta hezeak bihar
abiapuntu eternal abiapuntu atzo
abiapuntu bihar abiapuntu eternal
ikutu zehatza. Zehatza.

DESIOAK

Erran nizun
Espero zaitut behelainoak zauritu arratsaldeetan
abiatzean zure bihotzak beti iparralderantz eginen
du ihes
ehiza sahierra eta ehiza fierra
ehiza denborak persekutatuak
negar eginen dizut noizbehinka
eta paseiatuko igandeetan

Eta gaineratu
ez dugu betarik
kasuala da aurkikuntza oro
egunak goizak uneak eta sagarrak
beti zara xerloago hurrinean
eta apirilean ez dugu betarik
errepikatu nizun
negar eginen dizut gaur
desioak hesitu bide hastanduetan
egunerokoaren jitoan jitoa
gaur oroimena eta desioa
nauzulakotz gaur

Eta eman nizun eskua
eta ferekatu
desioa beti da errainu.

Udaberri erreez mintzo ziren
karezko egun haiek erditu zuhaitzez
estaltzen zenagatik minduak
txori migrarien zentzuaz itauntzen
lirain zen eta berandu arratsak izekitzean manerak
arbola zuten erretratu
han
desioak izena duen gartzelan

Udak etxe egin zuen bihotzetan
asko kostata ez pentsa
etxeen arazoa bihotzena bezala
larria da eta, aurkitu zuen azkenean
etxeño ttipi bat bi gela komunik gabe enea
arreska guztiaren artean

Eskegi zituen balkoian koloreko kamiseta
tirantedunak
bakero estuak desioaren seinale
haragia gizon ehizaren apeu
laru beltzaran guzti hori paradisuaren ordezko

Ah! eta zerbezazko gau-hamaka zabalduz
solasaldi arinetan zen permatu beirazko
hondakin berdeak, Heineken, hautsi aurretik
aurresenti zitekeen ez zuela luze joko

Goizaldera akaso zortea eta hori dena...
norbaitekin larru jotzeko parada eta hitz liketsak
ahoskatu: «Eguna fruitu umoa da jateko prest»

eta agurra mentazko karamelua edo pena
apur bat mikatza banandu aurretik

Gero jertseiak etorri ziren, kazadorak
eta zer moduz oporretan? non izan zara?
argi zegoen akabatzera zihoan
udako azken bidaia Iparraldera

Eta alokairuen igoera zela eta
zirt zart populatu zigun bihotza
baimena gabe ustekabean
gero eta luzeagoa den paralisiak.

Denborak enbor ustelak utzi zituen
azal zimur batzu eta su itzaliak
etxearen aurresentipen izua dilindan
esaldi erabakiorrak biziaren erranairu

Padura harridura disekatuez biztanletua
izen batzu harri lako oroimenak
xerka eskuz esku iziotua
eta ahulezi errimea euria datorrenean

Zirrarak koilare luze gisa
zuhaitz hilak perzepzio bila
mugalari xendeen etorrerak
berririk gabe euriaren zai

Enigma entendiezinak soak bezala
hagin soil batzu belarren islada
egun berri batzu kez zamatuak
eta desio erreka agortuak.

Gorputzaren iladak ortzemugan
galtzen dira, hirurogeitamar ele
ahul ezetz erratea bezala
soin bat gihar batzu nola
interpreta daiteke desioa: biokimika erranen da
gauzen adierazleak, marmar batetan
konfidentzialki arrazoi bilatzaileak
bitartean iragaiten dira lorratzak utziz
biziak
marraztuz betirako desioaren amildegiak.

Beltzaren semea da, elurgorriaren kumea urrats
erraldoienganako pasioz
untzaren anaia da eta untza bezala itsatsirik bizi
goizalde
ozpindu honetan
ekiaren destainaz
Transformer iaioa da ikasi du zintzoki noiz izan ibai
ertzeko makal
noiz sala aurreko intxaurrondo iguriki
Kontradikzio horia da eremu deslaienean erreinu
anker
batez marraztuz
sasoien babesa
Baina beste zerbait agindu zioten dena

Esaterako: zoriontasunaren bateran zitekeela
edo arratsarekin bat ez lukeela etzan behar
halabeharrez
edo izenen izenak ez zituztela kontutan
hartuko
edo oihan kordokatuaren pareko zitekeela

Baina nola inezturak arbola kixkurtu hala gaituzte
soildu
bizitzaren
bira amaitezinak

Eta gaur oroimenaz beste zenbaki lerratu bat da
bere izenaren hautematea arrotza zaio
nola arrotza sahatsaren lengoaia ezkutua
erabat
desenfrenatua
belarrietarako

Desioaren jeringiletan arraildutako hauts
naharoetan
barrena bidaiatzen da
badaezpada ikurrak lorraztuz badaezpada
paranoiaren erresuma estuko bide xidor
lizartsuan
Badaramatza egun franko eutanasia trenka dezaten
txostenak idazten

Egunak zigarroen ke hutsez elika daitezkeen
baieztapenez bete

ditu psikologi trataktusen margina oro
nola euriak oihanetako hostroen
larrua
malkoz

Jakin du guttunen poderioa postarien zorroenganako
eta motorrena gizonenganako
Espero du taxiak sahatian espero bezala
Biziaren kerua etorriko delakoan edo
Espero du kristalak hausteko
Pasioaren eldarnioak irakas diezaion
non utzi zuen soina.

«Destinu guztiak»
garrasi txartelak
autoak ezker egin zuen

«Destinu guztiak»
itsasoak hots
horma urtuaren zaporez
gero gorriz erein zen lurra
muskerra galtzean.

Jats beltzeko eraikuntzak
gordetzen zitueneko infinitoak
haruntzago beste bat.

«Destinu guztiak»
plastikozko patuz, egoneza
ozeanoak mareetan maiz
pasio zurak jitoan

«Destinu guztiak»
lau haizetara
arnas lainotua kristalean.

«maitasuna dirudit amets gorubetan»

Lauaxeta

Maitasuna dirudit amets gorubetan, gorubak urrun
hariak langar, desio estatua uluak
ur gauak durundan urrats ilaunetako higitar
ur jabal ilunen erasiak liparren erranairu

Noiz nontu zen desioa azken aldiz?
bere hobiz arrenkurak poseditu marmarra
zer etor daiteke ele uzta naharoa ez bada
zer ur zirrikituen amiltze oztina baino?

Farola legez ur estatuak birika erraldoietan
lasterka izenetan zehar itsasoa eztul hezez
erle zizta bihotz mortuengan amodioa
jelatzen ezkidi bezalako abenidetan

Noiz galdu zen desioaren aztarna labaina?
itaun daiteke sukarrak erre gaituen
eraso beilegi horiek etzan dute ezkidirik
ala bakarrik laztan trukez laztan da?

Pasioaz joana dela erran daiteke soilik
ebasle atzipetuak bezala laban eroria
eta arrakala

Metafora laruz gorputzak mintzo
desiok dagi eriro hatzaparretan bihotza
begietan dizdira

Haragiak dirau oraindik arrenkura zirkuluetan
esperma tantoz eta badakar nasai haginetan
berunak
jelatua hegala

Odol sari maitaleari eta antsia keinua erren
desio: herio dio ilargiak
plazer egoista botaka

Halabeharrezko omen bizitzea
neke eternala ikumenaren tolesturetan
hontzaren itzala

Begi-etorbide kimatutan b(l)us bat
sol-sol-la-s pentagrama
gorputz mutuen xerkan doana.

Arratsalde iraduen aroan
kantoietan farra egiten zenean
jakin eta eskura ezinagatik
hautsaren antzo zergatiak
izenen motots farafailetan
zergatik ahantziak, galduak
egunerokotasunaren arean
garrasi dagite objetuak

norbaitek norbait du espero
akura-plazerra
enkontru etsia akura-plazerra

Hedatua gorputzetan galduraren guttuna
edadearen etiketa fosforitoetan hautsa padura
haragiaren zaurietan biktimak
zergatik gabeko zergatiak
bihotz transaldatuak

norbaitek norbait du espero
akura-plazerra
enkontru etsia akura-plazerra.

LARRUAK

Alkobak musika lizuna egiten du arnas
ur musika desioa
amiltzen da izaren bide sekretuetan
ahuen, ele, arrenkurak izerdi kolpeka
eskuak hegan mingaina bide begiak mingain
bularra ilunbeta paisaietan luzatzen
ahoak urrunean dira galtzen.
infinito gosez bizi den estatua den desioa
larru arrasean igerika
ukimenaren erresuma orainaren
manera bakarra.

Jaime Siles-i erantzunez

Larrujo ilargiak laztandu larretan
Larrujo estazio umel apatridetan
Larrujo gihar ilun karriketan
Larrujo inoren begi berdeetan

Larrujo ilusio lako akura soinez
Larrujo barneraino gaua idoro
Larrujo maitalea hilgale grinez
Larrujo sekretu hezeak igurtziz emaro

Larrujo kontra natura
Larrujo ero moduan bizi xerkaz
Larrujo espermaz bustiz tristura

Larrujo zauri zurien erasiz
Larrujo musu eternalez
Larrujo gizon gosetien galgura gaziz.

Hiriak negutu zuen
hondar bazterretan homosexualak
begirada kolpez mintzatzen
elkar terziopelo elez putek
arrastaka zeramaten urtetako
nekedura
txakurrek jabe deslaiak
bilatzen zituzten
arnas eri garaia
azken autoak goragale azkena
ekarri zuen plastiko eta
gasolina usainez, bafle batek
izenak erran zituen
bere buruak kokatzearren batez ere
birao egin zuen norbaitek
munduaren kontra
iragan ziren modernoak
zelofan lurrinez inguraturik
far karkaila entzun zen
han hurrinean
egunaren argi salatariak hautsi zuten

ilunbeten arlasa
galipo gainean
kondoi bat datza

Zure ametsetan izkutatu
lur erlastuaren usaina
bi igali bi
bularraren muga marrazten
parez pare
ortzemuga beltzaranen otoi
eta ahoa plazer debekatuen jantzi
limista, sama eta arraso

Jakin zure adatsean
haitzuloengan gorde
iratxo perbersoak bailiren
ferekak ernetzen direla
eskua itzela eskua urrundu
jakin bisitariak opari ainubeena
jasoko duela

Eta bai ote erran zenidana
zelula oro plazerrerako
dela negu dela uda

zure eraikuntzak likido
preziatuen zordun
bai ote

Utz nazazu bisita zaitzan
arrasta ditzan zure bideak
pasioaren urrats sahierrez
haragizko segundutan
oren erreez.

Hatoz zugandiko hoberena leituko dizut
Hatoz utz nazazu mahaiaren ilunbeta freskuan min egiten
Hatoz berandu da eta badut nigan ura irakiten erretzeko
Hatoz izan gaitezen bat elgar ditzagun ezpatak
Hatoz jo zaitzan
Hatoz zure estolda ilunetan bisitari izan nadin
Hatoz hezurrak erreko dizkizut eta zure gorputzeko debekatuena
Hatoz desioaren izen bakarra zu
Hatoz hitz lizunak erranez xalo xume xuabe
Hatoz ene bularraren harri tailatuak ferekatuko zaitu
Hatoz nigandik ateratzeko izaki more bat
Hatoz esne uharretan igeri eginen duzu
Hatoz hatoz hatoz
Hatoz berandu da
Hatoz minaren plazerra absolutoa da
Hatoz bestela apika
zaharregi
gara
izanen.

Zure sexoak
eraikia non domeinu infinitoen
desioa ozpela den
udazken kantaren doinua du

Orbela buruan ipurdi inguruko pagoek
biluztura egunsentia da

Zure haragizko munduan mugitzen zarenean
desioz zamatu gurdiak gorputzaren bideak
zeharkatzen

Udaz eskuan soilik idatzitakoa
lur aisetua bezala zure haragiaren tolesdurak
bilduak udaberriaren zai

Egunsentia da eta
desio zaitut
ostera.

Gauetan hantutzen zaizun
poema beltz more horrek
nik ezagutu idazmolde
ederrenak ditu
ez du inoiz poema batek
zure gorputzaren musikalitatea
erdietsiko

Enegan idatzi Z orok
zure izterren basoan A
du paratua gogoa.

amoltsu arakatuko dizut arima
eta barauez beztitua bazkaldu bi habiak
eta desioaren desioz
erroitza erlastuko eme
ferekaz fereka frintzatuko
zure gorputz gotorra gargailatu arte
izanen gara haguna, hatu gabe hegan
aurkituko ditut zure istil, izaro, intziriak
jabal jabalak

kisuaren kerako kaduria kimatuz
liho leun loa
menturaturik marea—
nenufarengan
otso odoltsuaren gisa ohostuko
pipilaren perfumea
ene soineko egiteko
eta titiak tantai
uhuri uzta dute ukanen
xendaren xerka abiatuko naiz
zantzoak zuzen zutuz zanbrotuko dizut zakila.

Perspektiba leuna da
mihisa meheak oro estaltzen duela
odolaren jario isila bezain
emea begiratua: iragana

Bular sendar guzti haien dizdira urruna ulua
desioaren setioan gauean bilaka parkean
(eszenatoki berbera)
slip multikoloreen laburpena desio hantua

Gaur edozein hiritako parke honetan
irudien iragaite hastandua
begiradaz begirada irristatzen da desioa
hankartean galtzen
beranduegitan itzultzen
pasioa zurezko da
urriko gauetze honetan.

Motza da estaltzen zaituen ehuna
granatea soinaren zabaltasunean
bustia marrazten duen muinoa
itsasoko duna
eta tenplu bateko kolumnak hankak
basoz populatuak ur beltzez
zeharkatuak tantak
zure anguluetan
hain da motza estaltzen zaituen ehuna
ezinezkoa asmatzea izkutatzen dituen munduak
granatea eta haragia
hondarraren galgatan.

Hain zara plastikozko
horaila platino beirazko bezala hauskorra
metakrilatozko begiak kliskan
modernitatearen irudi eta baso umoa
zugandiko naturaltasun aurrefabrikatua, xerloa
altzairu bularra irlatzen nauena
ukimen beroez titi buruak, arreak
zurezkoak eta ixterrak
etorkizunak gordetzen dizkigun
fruitu arraroen formaz
zirkuito, kable
elektrika-odola
dizdir argitsua
ipurtargi fosforeszentea zure sexoa.

Iragan hintzen une abrea
zer esan burua galdu nuela
higanako aseminez asea
ilargiak ere higalea

Iragan hintzen desioaren desio
zein amets kotoizko mutil gaztea
aran urrun, baso umo, perbersio
odoltsuaren soin errimea

Iragan hintzen milaka hasperen
hire bularraren errainu hotza
ene hitzalaren urradura moreen

Hintzen iragan haize landan
iragan hintzen desesperoa dantzan
iragan hintzen hintzen iragan.

GOIZALDEAN

Bere begien osin agorrengan abenidak zinkuru
langarrak eraiki tanta finez
(isiltasunaren poderioa)
Minez dihardute biztanleek urki ebakiak lez
soin trenkatuenganako grinez
(leiho oihanean barrena)
Pasiloa infinitorantz galtzen gurdia ortzemuga
bailiren
(karrika burdin sare)
Leiho bakoitzari paisaia zaio paisaia bera nenufare
ustelen desioz ereina
(urmaelaren mentura: ar-hesia)
Oroimenak hezurrezko kutxetan orain trinkoan
aurkezten etorkizun ele beilegiz
(denboraren beta)
Nekeza bere malenkonia manukorrari ihes egitea
urte berri bizi berri deritzaio elurraren etorrerari
(izen okerrez zamatua)
Soinak bakarrik jakin dezakete desio nabarren berri
(negar egiten da farmalkoz)
Untzarenganako plazerra paradisu kadukatua

(farmalkoz elikatu ditu egunak)
Ilunbetak dirakite hostroei firfirak eragotziz alterego
zimelduak pertxertan direino dilindan
(beti beste izatera kondenatuak)
Marmarren kolorearekiko dute logikamina garunen
adierazbide akatsek eskeinitakoaren etoiaz
(kantuka)
Marrubizko mermelada elaien hobi
kafesnearenganako
dantza erotikoan
(bihotzeraino odola bezala)
Espazioa xurxulez frinzatzen kutxakardetan
Euskradak
amestuz
(posible da desesperoa nabigatzea)
Estonatua dantzu poterearen karkail teiauak
(bere begien osin agorrengan)
Zanbrotsu deritzo kantu orori zer egin gaur zer egin
sekula
(erreka umoen abenida zinkuru)
Baita.

Koldori

Une bere bere honetan
edozein ekintza edozein liburutan gorde daiteke
lagunak eskapo, guretzat trenik ez
gure bihotzean, azken bihotza azken
trenak eraman zuen iragan
uherra pairatu beharra dute
(Biziko istorioak ipui ankerrak dira ere)

Eta giltza batzu nonbait
mahai gainean apika, liburu artean
eskuen esperoan dautza
ehundugeko ele eskegien erara
ilunbetan oihal zuri dizdiratsu brilant
haizeak eramana
irudi akuarelatua lagun joanarena
formak bere arrailduran badiraute
ez da banaketa nekezik
dizdira haize baleran
gugan ernetzen da arrasto antza
eta bizi hil negar irri badugu egiten
lagun joanak bagaramatza.

Patxi Rosoni

Goizaldean gorde hintzen furingerarekin
joanak apeta setatiak
kolore guzti haien artean gorde
hiria lainoak erditzen zuela
aguztuarena egutegia, oroimenarena ordea
ahioa balkoietan zintzilik
goizaldeko koloretan joran
eta desio hire gisa iheskor

Orduan huen partitzearen orena
eta Aguztua begiak udazkenarenak
dituena, esperoa beti duk berandu
ispilu hautsi forma
galdu, hemena hemen gabe
lehertzen oldar
gero eten pasioz finagoetan
bihotzen adabaki oroitzapenez

Jaiotzaz kausa eginik
aztarnez posibilitate erlojuaz
torloju ustekabean sortu arlasak
jadanik gabe hi
pasilo ilunetan barna non
haizen Egon kaiolatua
irudi ezabatu
betiere desioaren hegiran

Goizalde garagardotuan ahioa
frustrazioen salatari denean
kausen bilaketa, paseoa argiak
bentzutu hirian paseoa
hin

Argazki zuri-beltzetan egunsentia eternal
bilakatzean
zer da izan edo izanen errainua
buruaz beste egitera doazen baleen mentura
ipar leinuen permadura
akabatzean beste gu batzu gutuz
largatuz plaza hutsean marearena
dena tantai izenak
konotazio ezezagunak, urrats lausoak
zigilu hautsiak ohantze hutsak
behelainotako soin galduak
soin gabeko izenak.

Euriaren kolore herdoilez bustia karrika
paseiante presatuen bihotzetan desio mina igerika
telebista orratzen gerizan bizi ezdeusa etsita
bide erdian zerbaiten seinale guardasola hautsita

arrats euri tanta laspel luzatzen den harila
lo-hasman dirau jada sexoak itzalia
hilartitz antzo hedatzen dira desirak
ohantzen hutsen aztarnetan begira

negu, balkoi bustitan ernetzen da adarkera
bedats bideak aldian gogorapen ezkelak
paralisiaren kontrako permaduraz hausten dira
aikerak
arroka beltzak bildu dituzte ibilerak

urtuak datoz ametsak, urtuak desio
arratsak sexo furingeraren setio
zanbrotsua karriken magaletan da oiestu
negu, gorputzak dira ostendu.

Zuzi zurien gerizan ikusten zaitudanean
nola elur pozoindua ekaitz erradiaktiboan
ozono gabeko hitzak ixurtzen dituzu
hitz ilunak irristatzen ezpain trenkatuetan ilun
hilotz zaudelakotz

Zure zain erraldoietan milaka Heriotz igerika dira
birika puskak bezala ur zingira uherretan
zelatan dirau garai atomiko hauen izurrite xangratsu
oro esperman
larru jo aldi oro maitea usteltzen zatzaizkit
laztanetan ustel
hilotz zaudelakotz

Txua ortzemuga limea zerutzat bihotzean
populatutako zomorroek
begi izekia bezalako ideia itsasoan nabigatzen
okel keru beltza darizula sistole bakoitzero diastole
beltz
hilotz zaudelakotz

Zuzi zurien gerizan ikusten zaitudanean
garunak neurona ordez metraila zauriak ditu
orro odoltsuak erortzen zaizkizula sinapsi bakoitzero
hemisferio ezean baratz lohi lohi
hilotz zaudelakotz

Hitz lime aire bat dabil
amets hotzen oihartzun
murmurio eremu batek garamatza
preziatuki landatu izen iladak
alkian atzipe ezinezko errealitateen seinale
euri egin du gugan heriotz
isil ipar gurdiak zeharkatzen
gaituzte
desioak, hantugabeko
hitzak eta eskuak
ezerezaren bide zidorrak urloan

Halere jo dezaket ekintzara
zergatik zaigu orduan halabearrezko asesinatzea
bi galdera zeinu larrujotzen ari ginela
ostatu zaharrean non prostitutek gorpu mutuez
lan egiten zuten

Orduan zer dira bi gorpu gehiago
bi aizto gaizto

edozein izkinatik sor daiteke erasoa
baina sexoak lime datza izter gainean

non nigandik dago gartzelako agintari?

Aingeruaren bihotz ustela. Argiak kausigabeko pasioak.
Odol ixurketa letaginetan.

Paradisu kadukatua. Paradisu kadukatuaren kiratsa. Errekaren
gaurako desira lizuna. Gauen desioa ibi bila.

Urruti perlak bezala urruti. Urratsak taupada
gisa bizi-arrastoak. Odol ilargi ura.

Urtu ihes eta irristatu urratsak. Ibi exotikoa
Gauren dirdir umeletan. Anpuluak diamante.

Anguluak arantza Gauren begitan. Hidrofobia.
It was an uncertain adarkera.

Eskizofrenia ezkien elea. Odol jarioa ilargiari.
Gizaki eskukadak. Hiru aldiz hiru: Heriotza.

Haltzak katarroarekin atijaka. Haltzak ur baso batetan murgiltzen. Haltz ebakiak.

Gauren arrama artean ontza. Iradukila untza. HIra eri eri hori.

Perlen taupada ur uherrak irensten. Sistole sistole. Diastole diastole. Denbora denbora errepikapena.

Zakil oihana sutan. Bihozbera oihan guarda odol-etan. Errukariaren patu urdina. Heriotza.

Aingeruaren bihotz ustela ontza. Katarroa bizia. Zakua.

Arratsa desioz jaztean
zakil eta karminez
ekia atertuz bat
komun publikoetan
ez dute maitasunik aitortzen elkar
gauarenganako plazer huista soilik
eta ez jakite hori
HAY CUERPO / GORPUTZA BADA
gizona batzutan
gorpua beti

Enigmak daramatza Gauk
enigma umelak, ezinezko desirak
seta narru olioztatu antzo

enigmak daramatza Gauk
behialako enigmak soin iheskorretan
akiduran amaieratuak

enigmak daramatza Gauk
betiko enigmak, betirakoak
garaien hilzorian erotutakoak

enigmak daramatza Gauk
enigma enigmari kateatuz
bihotzari plastikozko bihotza uztartuz

enigmak daramatza Gauk
enigma enigmak
enigma hobiak.